

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Ondarroako Udala****Ondarroako Udaleko Brigadako Enkargatua aldi baterako hautatzeko deialdiaren oinarriak.**

2019 abenduaren 30eko 2019/1533 Alkatezaren Dekretuaren bidez, onartu dira Brigadako Enkargatuaren lanpostua aldi baterako betetzeko hautatze prozesuaren deialdiaren oinarri hauek:

Lehenengoa. — Xedea

Hautapen-prozesua deitzen da, sarbide libreko sistemaren bidez, lehiaketa bitartez, honako lanpostu hau betetzeko:

- Brigadako enkargatua, lan kontratuduna.
- II. Hizkuntza-eskakizuna, 2019ko abenduaren 16ko derrigortasun datarekin.

Eskatzen den profila:

- Mantenimendu eta zerbitzuen arloko arduradun bezala lan esperientzia izatea.
- Mantenimendu eta zerbitzuen arloan lan-taldean antolakuntza eta kudeaketan esperientzia izatea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna eta lidergoia izatea.
- Pertsonak zuzendu eta kudeatzeko gaitasuna izatea.

Euskadiko Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 legearen 27.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, bete beharreko lanpostuaren berezitasunak ikusita, hautaketa lehiaketa sistemaren bidez egingo da.

Lan poltsa bat sortuko da udalaren beharretarako.

Bigarrena. — Araudi aplikagarria

Deialdiari honako araudia aplikatuko zaio:

- Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren gaineko urriaren 30eko 5/2015 Legea.
- Euskal Funtzio Publikoaren gaineko uztailaren 6ko 6/1989 Legea eta geroko aldaketak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan euskararen erabilera arautu duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua; eta izandako aldaketak.
- Sarreraren, Lanpostuaren Horniduraren eta Lanbide Sustapenaren gaineko Araudi Orokorra ontzat eman zuen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua.
- Toki Administrazioen hautaketa-prozedura arautu behar duten arauak ontzat eman zituen ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua.
- 190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena.
- Toki Araubidearen gaineko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; Toki Araubidearen gainean indarrean dauden legezko ebazpenen testu bateratua eta horren osteko aldaketak ontzat eman zituen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua.
- Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa eta osteko aldaketak.
- Datu Pertsonalak Babesteko 3/2018 Lege Organikoa.
- Eusko Legebiltzarraren Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea.

**Hirugarrena. – Lanpostuaren funtzioak**

Lanpostu honen funtzioak hurrengoak dira:

- Udal eraikinen, kaleko instalakuntzen zein herriko mantenurako (errepideak, arketak, espaloiak, hiri-altzariak, argiteri-publikoa, hoditeria, ur sarea...) ofizio anitzeko lanen (igeltseritza, elektrizitate, iturgintza, arotzeria, kale garbiketa...) koordinatzaile eta buru funtzioak bete.
- Dagokion ofizioetako ofizialaren funtzioak betetzeaz gain, bere kargu dagoen pertsonala zuzendu, hauen lana koordinatu, banandu eta ikuskatu. Obra eta Zerbitzuetako arduradunarekin batera, lehenetsunak ezarri.
- Esleitutako baliabideen eta lan tresneriaren eta mantentzeaz arduratu.
- Materiala edo tresnak erosteko proposamenak aurkeztu. Biltegiko materialaz arduratu.
- Udaletik kanpoko enpresek udal sarean lanak egin behar badituzte (ur, elektrizitate, hoditeria), lan horiek gainbegiratzen eta kontrolatzen lagundu.
- Laguntza teknikoa eskaini, hala eskatzen zaionean, gai desberdinetan (elektrizitatean, iturgintzan, igeltseritzan, eraikuntza berrien proiektuetan, hirigintza lanetan, etab.).
- Bere ardurapeko lanen plangintza burutu, erabilgarri dituen baliabide eta epeen arabera.
- Jai eta ospakizunetan beharrezko azpiegituren instalazioen muntaia egin (eszenatokia, elektrizitate sarea, etab.).
- Hauteskunde garaian kabinak, kartelak, eta abarren muntaketa lanak egin.
- Burututako lanak eguneko partean jaso eta arduradunari helarazi, honek gainbegiratu dezan.
- Langileen hautatze prozesuetan parte hartu, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datorrenean.
- Saileko arduradunak hala ezartzen duenean, saileko gainontzeko lanpostuen ordezkapenak burutu, horretarako beharra dagoenean (bajak, oporraldiak, etab.), bere lanpostuaren kategoria eta gaitasunak kontutan izanik.
- Zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko diren eta horrela eskatzen zaizkion beste edonolako lanak burutu, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datozenak.

Laugarrena. – Plazaren deskribapena

Honako hau da plazaren deskribapena:

- Lanpostua: Brigadako arduraduna.
- Harreman juridikoa: lan kontratuduna.
- Taldea: C1.
- Titulazio taldea: 6.
- Lanpostu mailako osagarria: 20.
- Berariazko osagarria: 20.780,07 euro.
- Hizkuntz eskakizuna: 2.
- Nahitaezkotasun data: 2019ko abenduaren 16.
- Mota: Berezitua.
- Hornidura sistema: Lehiaketa.
- Administrazioa: Ondarroako Udala.
- Baldintzak: Dedikazio Berezia.

**Bosgarrena. — Hautagaien betekizunak**1. *Betekizun orokorrak*

Hautagaiak honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

- a) Nazionalitatea: Espainiako hiritartasuna izatea.
Funtzionario sartzeko prozesuetan, Espainiako herritarrekin bezalaxe eta baldintza berdinetan honako hauek ere hartu ahal dute parte, botere publikoa baliatzen edo estatu edo administrazio publikoetako interes orokorren zaintzan zuzenean edo zeharka parte hartzen dutenek izan ezik:
 - Europar Batasuneko Estatu Kideetako hiritarrak.
 - Espainian erresidentzia legala duten atzerritarrak.
 - Espainiarren ezkontideak eta Europar Batasuneko kide den estatuetako baten ezkontideak, ezkontidearen nazionalitatea edozein izanik ere, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude. Horrez gain, beren ondorengoei ere aplikatu beharko zaizkie, baita, zuzenbidez banatuta ez badaude, ezkontideen ondorengoei ere, baldin eta, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.
 - Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunenei jarraiki, atal honetako lehen paragrafoan zehaztutakoaren arabera langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritartasuna izatea.
- b) Gaitasuna: Bete nahi den plazari dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzeko behar den gaitasun funtzionala eta psikofisikoa edukitzea.
- c) Adina: hamazortzi urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gaititzea.
- d) Gaikuntza: diziplina-espeditente bidez inongo Administrazio Publikoren zerbitzuetatik edo Autonomia Erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioetatik baztertu ez izana, eta ebazpen judicial bidez lan edo kargu publikoetarako desgaiakuntza absolutua edo berezia ez izatea, funtzionarioen kidegoan edo eskaletan sartzeko. Beste estatu bateko kide direnei dagokienez, gaitasunik gabe utzita edo antzeko egoeran ez egotea, ezta ere bere estatuan enplegu publikoan sartzeara eragozten duen diziplina-zigorrik edo baliokiderik izatea.
- e) Titulazioa: Batxilergoko edo Lanbide Heziketako erdi-mailako zikloko hurrengo titulu hauetakoren bat edo baliokidea izatea; edo, bestela, eskaerak aurkezteko epea bukatutakoan, titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta edukitzea: erakuntza eta obra zibila, eletrizitatea eta elektronika, fabrikazio mekanikoa eta instalatze eta mantentze-lanak.
- f) Euskararen II. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu izatea.
- g) B motako gidabaimena izatea eta egiaztatzea.
- h) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik ez izatea, herri-administrazioen zerbitzura dauden langileentzat bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araubidearen arabera; hala ere, kargu publikoan jardun edo jarduera pribatu bateraezina egiten dutenek ez dute aukera egiteko eragozpenik izango, aipatutako legezko arauetan adierazita dagoen bezala.

Hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago bete beharko dituzte baldintza guztiak. Era berean, gainerako baldintza guztiak bete behar dira hautaketa-prozesuan zehar izendapena egin arte, gaitasun funtzionalari buruz b) idatz-zatian ezarritakoa izan ezik; kasu horretan, udalaren zerbitzu medikoek egiaztatu behar dute praktiketako edo karrerako funtzionario izendatu baino lehen.

Hala ere, prozedurako edozein unetan epaimahaiak jakingo balu izangairen batek ez dituela deialdiaren baldintzak betetzen, izangai hori prozesutik baztertuko da, interesdunari entzunaldia eman eta gero; eta egun horretan bertan emango zaio erabakiaren berri hautaketa-prozesua deitu duen agintaritzari.

**2. Datuen babesa**

- a) Oinarri hauen xede diren hautaketa-prozesuak publizitate printzipioak araututa daude. Ondorioz, izangaiaren eskabiderik ez da onartuko baldin eta ez badu bere datuak lagatzea onesten hurrengo paragrafoan adierazitako edukiaz eta helburuetarako.
- b) Izangaiek oinarri hauetan jasotako hautaketa-prozesuetara aurkeztean baimena eman beharko dute eskabidean ageri diren datu pertsonalak erabiltzeko (izen-abizenak, NAN eta ikasketak), aldizkari ofizialetan, iragarki tauletan, web-gunean eta, oro har, hautaketa-prozesuaren emaitza partzialak edo behin betikoak jakinarazteko erabiltzen den edozein bideren bitartez argitaratzeko.
Halaber, hautagaiek datuak erabiltzeko baimena eman beharko dute, HAEK edo erakunde eskudunak euskararen hizkuntza-eskakizuna edo beste hizkuntzaren baten ezagutza maila egiaztatu dezan, eta, oro har, hautaketa-prozesuari dagozkion ariketak epaimahaiak, erakundeak, enpresak edo epaimahaiak agintzen dionak modu egokian prestatu eta burutzeko direla baieztatzeko. Gainera, hautagaiak deialdian ezarritako bazterketa medikoen taulara egokitzen direla ziurtatzeko erabili ahal dira datu pertsonalak.
- c) Lan-poltsak eratzeko ondorioetarako, prozesu honetan parte hartzeko eskaeran, hautagaiek adierazi beharko dute beste administrazio publikoetako erakundeei honen inguruko datuak ematea baimentzen duten edo ez. Datuak hurrengoak izango dira: izen-abizenak; NAN; helbidea; harremanetarako telefono-zenbakia eta prestakuntza-maila, soilik horien bidez legez aurreikusitako terminoetan enplegu-eskaintzak egin ahal izateko.
- d) Hautagaiek emandako datuak fitxategi batean sartuko dira eta Ondarroako Udaleko Udal Idazkaritza izango da fitxategiaren organo arduraduna.
- e) Interesdunek eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurkatzeko eskubiak gauzatu ahalko dituzte.

Seigarrena. — Eskaerak eta onespena**1. Eskaerak betetzea eta aurkeztea**

- a) Eskaerak Ondarroako Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira. Agiri horretan agertuko dira datu pertsonalak, helbidea, harremanetarako telefono zenbakia eta deialdian eskatutako betebeharrak guztiak betetzen dituela azaltzen duen adierazpena. Aurkeztutako merituak egiaztatzeko agiriak, lehiaketa fasean baloratzekoak.
- b) Eskaerak 20 (hogei) laneguneko epean aurkeztu ahal izango dira, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbaitzen hasita.
- c) Eskaera epe barruan eta modu egokian aurkezten ez bada, hautagaia hautapen-prozesutik kanpo geratuko da.
- d) Eskaeraren akatsak eta gabeziak zuzentzea: Eskaeran antzematen diren egitatezko akatsak, materialak edo aritmetikoak edozein momentutan zuzendu ahalko dira ofizioz edo interesdunak eskatuta. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoari jarraiki, eskaeretan akatsak egotekotan, errekerimendu bat egingo zaio interesdunari, 10 eguneko epean, dagozkion zuzenketak egiteko. Halaber, jakinaraziko zaio, zuzenketak egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela eta, bestelako izapiderik gabe, bere eskaera artxibatuko dela.

2. Eskatzaileen onespena

- a) Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, Alkate-Presidenteak onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onetsiko du. Zerrenda horietan, hautagaien izen-abizenak agertuko dira; Nortasun Agiri Nazionala eta, hala badagokio, ez onartzearen arrazioa.



- b) Ebazpen hori Ondarroako Udalaren webgunean argitaratuko da eta Udalbatza-ren Ediktu-oholean jarriko da. Hala, 5 eguneko epea emango da bazterketaren aurka erreklamazioak aurkezteko eta bazterketak eragindako akatsak edo dokumentuak zuzentzeko. Erreklamazioak egiteko epe hori igarotakoan, hautagaiak onartzeko eta baztertze epea ebazpena onartu duen agintaritzak ebatziko ditu aurkeztutako erreklamazioak eta behin-betiko zerrenda bezala jakinaraziko da ebazpen hori.
- c) Onartuen eta baztertuen zerrenda onesten duen ebazpenaren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Ondarroako Udalaren aurrean, hilabeteko epean, zehazki, zerrendak udal-webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

3. *Jakinarazpenak*

Balizko jakinarazpenetarako, helbidetzat hartuko da eskaeran adierazitakoa, geroago beren-beregi eta modu egokian deialdia egiten duen organoari bestelako helbide bat jakinarazten bazaio izan ezik.

Zazpigarrena. — Kalifikazio-epaimahaia

1. *Osaera*

- a) Epaimahaian epaimahaiburu bat, idazkari bat, eta deialdian ezarritako epaimahaikideak egongo dira, eta epaimahaikide-kopurua ezingo da izan inola ere bost baino gutxiago. Epaimahaia osatzen dutenak nagusiki teknikariak izango dira, eta espezialitatearen printzipioa izango da nagusi. Beraz, kide guztiak deialdiko lanpostuan eskatzen den titulazio berdina edo maila handiagoko titulazioa izango dute, eta, gutxienez, kideen erdiek hornituko den lanpostuari dagokion ezagutza-arlo bereko titulazioa izan beharko dute, eta, hala ez izatea justifikaturik egon ezean, gizonen zein emakumeen ordezkariak, bakoitzetik, gutxienez %40 izango da.
- b) Epaimahaiko kide guztiak izango dute hitz egiteko eta bozkatzeko aukera, idazkariak izan ezik. Epaimahaiaren erabakiak bertaratutako kideen gehiengoz hartuko dira eta, berdinketa egotekotan, epaimahaiburuaren botoarekin ebatziko da.
- d) Epaimahaiko kideek, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, uko egin beharko diote parte hartzeari, eta Udalbatzako presidenteari eman beharko diote horren berri. Halaber, hautagaiak epaimahaikideak errekusatu ahalko dituzte, aipaturiko legeko 24. artikuluan xedaturikoaren ildotik, aurreko artikuluan aurreikusitako zirkunstantziaren bat gertatzen denean.
- e) Hautaketa-prozesuan onartutakoen eta prozesutik baztertutakoen zerrendekin batera, udal-webgunean argitaratuko da Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izenen zerrenda, Alkatetza-Presidentetzak haiek izendatu eta gero.
- f) Kalifikazio-epaimahaiko kideek, egingo duten zerbitzua dela-eta, zerbitzuagatik kalte-ordainei buruzko arauetan aurreikusitako legezko kalte-ordainak jasoko dituzte.

2. *Eraketa*

- a) Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du jardun gutxienez epaimahaiburua eta idazkaria (titularrak edo ordezkoak) eta epaimahaiko gainerako kideetatik erdiak agertu ez badira.
- b) Epaimahaiak lanetara aholkulari espezialistak ere batzea erabaki ahalko du, hautaketa-prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako. Halakoek beren espezialitate teknikoetan baino ez dute jardungo, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeko 31.3. artikuluan xedaturikoari jarraituz, eta aholkua eta laguntza teknikoa beren espezialitatean jardunez emango dituzte, hitzarekin baina botorik gabe.
- c) Epaimahaiburutzak hautaketa-prozesua aurrera eramatea koordinatuko du, eta bozketetan berdinketak ebatziko ditu, bere kalitateko botoarekin. Epaimahaiaren



kide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, idazkari diharduenak salbu, azken horrek hitza izango baitu, baina ez botorik.

- d) Hautaketa-prozesua behar bezala garatze aldera, epaimahaiak oinarri haue-tan aurreikusten ez diren gaien inguruan erabakiak hartzeko ahalmena izango du, bai interpretazioari eta aplikazioari dagokienez, bai epaimahaiaren beraren funtzioak egikaritzeari dagokienez. Horren ebazpenen aurka, gora jotzeko erre-kurtsoa aurkeztu ahalko da Alkatetza-Presidentetzaren aurrean eta ebazpenean bertan xedatutako epean, betiere iragarki-oholean argitaratu eta hurrengo egu-netik zenbatzen hasita.

Zortzigarrena. — Hautapen-prozedura

Hautapen prozedura, lehiaketa izango da.

Ezingo dira balioztatu merezimenduak aurkezteko epe barruan alegatu eta justifika-tu ez den bestelako merezimendurik, ezta, epe barruan alegatuta egon arren, geroago justifikatzen ez direnak ere. Eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretik lortutako merezi-menduak soilik balioztatuko dira.

Ondarroako Udaleko Administrazioan emandako zerbitzuak alegatu beharko dira baina interesdunek ez dituzte horiek egiaztatu beharko. Horiek administrazioak zenba-tuko ditu ofizioz. Gainerako Administrazio Publikoetan emandako zerbitzuen iraupena administrazio bakoitzak horretarako ezarrita daukan eredian ziurtatuko da. Edonola ere, lan egindako epeak banakatu beharko dira, epe horiei dagozkien Kidegoa edo Eskala, Azpieskala eta Klasea edo Kategoría zehaztuz.

Deialdi honetarako, hauxe izango da merezimenduen baremoa:

1. *Lan eskarmentua:*

Administrazio Publikoan eta Sektore Publiko Instituzionalean Brigada edo zer-bitzu anitzen Enkargatu moduan, edo pareko postu batean, lan kontratu menpe zein funtzionario gisa, egindako lana gehienez ere 50 punturekin balioetsiko da: 0,80 puntu, egiaztatutako hilabete bakoitzeko.

Enpresa pribatuan, pareko ezaugarriak izandako lanpostu baten, egindako hila-bete bakoitzeko gehienez ere 25 punturekin baloratuko da: 0,80 puntu, egiazta-tutako hilabete bakoitzeko.

Enpresa publiko zein pribatuan egindako lanaren konputua egiteko, lan egindako aldiak batuko dira eta horren ondoren, hilabetekoaz behetiko aldiak ez dira kon-tuan hartuko.

Ondorio horretarako, 30 egun naturaleko aldia hartuko da hilabetetzat. Adminis-trazio publikoak edo enpresak emandako egiaztagirien bidez egiaztatu beharko da esperientzia, eta kontratuaren edo izendapenaren iraupena, lanaldia eta bet-etako lanpostua adierazi beharko dira. Administrazio publiko batean emandako zerbitzuak egiaztatze, ziurtagiriak (originalak edo kopia konpultsatuak) aurkez-tu beharko dira; zerbitzu horiek eman diren Administrazio funtzionario esku-dunak egindako ziurtagiria izan beharko du. Esparru pribatuan egindako lanean kasuan, lan kontratua eta Gizarte Segurantzak ematen duen lan bizitzaren agiria aurkeztu beharko da. Agiriotan lanpostuaren izena, kategoría, lan funtzioak, de-dikazioa eta iraupena agertu beharko dira.

Lan eskarmentuari dagozkion agiriak egiaztatutako fotokopien bidez aurkeztuko dira:

- Dagokion enplegu erakundean erregistratutako kontratuak.
 - Zerbitzua emandako entitate kontratatzaileak luzatutako lan zerbitzuen ziurta-giriak.
 - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak luzatu eta eguneratutako lan bi-zitza ziurtagiriak, lan egindako denbora eta lan kategoría zehaztuta.
2. *Euskera:* III. HE edo pareko bat izateagatik: 10 puntu.
3. *Gida baimena:* C1 motakoa izateagatik: 10 puntu.



4. *Informatika*: Gehienez 5 punturekin honela baloratuko da informatikari buruzko ezagutza izatea, Euskadiko Informazioaren Gizartearen Planak KZGunea zentro publikoetako moduluei dagokiena:
 - Microsoft Word 2003/2007/2010 Oinarrizkoa: 2,5 puntu.
 - Microsoft Word 2003/2007/2010 Aurreratua: 5 puntu.
 - Microsoft Excel 2003/2007/2010 Oinarrizkoa: 2,5 puntu.
 - Microsoft Excel 2003/2007/2010 Aurreratua: 5 puntu.IT txartelen ziurtagiri bidez egiaztatuko da modulu hauek gainditu izana. Modulu bereko oinarrizkoa eta aurreratua egiaztatzen badira, azken hori soilik baloratuko da. Aplikazioen bertsio berrien ziurtagiriek bertan behera utziko dituzte aurreko bertsioenak. Modulu horietako baten jabe dela egiaztatzeko, behar bezalako ziurtagiria aurkeztu beharko da.
5. *Prestakuntza*: Gehigarri bezala, hautapropa hauetan parte-hartzeko eskatutako formazioaz gain, hurrengo titulazioetatik gradurik altuena duena balioetsiko da, gehiengoz 5 punturekin:
 - Hurrengo lanbide familiaren bateko erdi mailako gradu formazio zikloren bat: eraikuntza eta obra zibila, elektrizitatea eta elektronika, fabrikazio mekanikoa eta instalazio eta mantentze-lanak edo antzeko ezaugarriak dituzten formazio zikloak: 2 puntu.
 - Aurreko paragrafoan adierazitako lanbide familietako goi mailako gradu formazio zikloak: 3 puntu.
 - Bete beharreko lanpostuarekin erlazionatuta dagoen diplomatura (arkitekto teknikoa, ingeniari teknikoa): 4 puntu.
 - Bete beharreko lanpostuarekin erlazionatuta dagoen gradu, lizentziatura, master edo doktoretza (arkitektu, goi-ingeniaritza): 5 puntu.
6. *Proba psikoteknikoak eta elkarrizketa pertsonala*: egin beharko dira lanpostuaren profilerako eta bete beharreko eginkizunetarako izangaiak egokiak ote diren ebaluatzeko. Epaimahaiak izendatutako teknikari batek egingo du proba. Gehienez 15 punturekin balioetsiko da.

Bederatzigarrena. — Hautapen-prozesuaren kalifikazioa

1. Emaizak argitaratuko dira dagokion iragarkia jarriz Udalbatzako Iragarki-oholean eta Udaleko www.ondarroa.eus webgunean, zehazki, epaimahaiak kalifikazioa adostu eta hurrengo 24 orduetan.
2. Azterketen berrikuspena eta kalifikazioen inguruko erreklamazioak.

Oro har, hiru lanegun egongo dira -epaimahaiaren erabakia argitaratzen den egunetik aurrera- kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko. Hala ere, hori ez da eragozpen izango epaimahaiaren jarduna aurkaratzeari buruz Zazpigarren Oinarrian ezarritakoa aplikatzeko.
3. Azken kalifikazioa eta hautagaien hurrenkera.
 - a) Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa lortzeko, batu egingo dira eskuratutako puntuak. Kalifikazio horrek erabakiko du hautagaien hurrenkera.
 - b) Euskal Funtzio Publikoari buruzko Eusko Legebiltzarraren 6/1989 Legearen 27.2. artikularekin eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikularekin bat etorrita, gaitasun berdina duten kasuetan, emakumeei emango zaie lehentasuna aurkeztutako guztien %40 baino gutxiago emakumeak direnean, eta alderantziz. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagai batzuk neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituztenean —nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik—; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoa izatea.
 - c) Hala ere berdinketa apurtu ez bada, irizpide hauek erabiliko dira hurrenkera ezartzeko: lan esperientzia gehien duena.

**Hamargarrena. — Onartutako pertsonen zerrenda****1. Zerrendaren argitalpena:**

Hautaketa prozesua bukatu ondoren, epaimahaiak Ondarroako Udaleko iragar-ki-oholean eta udal-webgunean (www.Ondarroa.eus) argitaratuko du pertsonen zerrenda, dagozkien kalifikazioekin.

2. Hautatutako pertsonen zerrenda:

Hautaketa-prozesua osatzen duten kalifikazioa ezarri ondoren, epaimahaiak puntuazio-hurrenkeraren arabera argitaratuko du hautatutako pertsonen zerrenda eta dagokion izendapen-proposamena egingo dio Udalbatzaren presidenteari. Aldi berean, azken bileraren akta bidaliko zaio agintaritzari horri, eta, bertan, puntuazioaren hurrenkeraren arabera, deialdiko lanpostu-kopurutik kanpo gelditu diren izangai guztiak agertuko dira. Horrela, bada, lanpostua lortu duen izangairen bat lanpostuaz jabetzen ez bada, ordezkioa bilatuko da zerrenda horretan. Nolanahi ere, zerrenda horretan agertzeak ez du beste eskubiderik edo halakoaren espektatibarik ekarriko.

3. Lan-poltsak:

Dena delako hautaketa-prozesua gaintu duten lanposturik gabeko pertsonen zerrendak bitarteko edo aldi baterako funtzionarioak edo lan kontratadunak izendatzeko baliatu ahalko dira, indarrean den araudian aurreikusitako kasuak gertatu, eta Udalbatzak egoki irizten dionean; hala, aldi baterako zerbitzuak emateko udalaren lan-poltsetan sartuko dira. Dagokien deialdian hautatutako pertsonak lanpostuaz jabetzen diren egunaren biharamunean sartuko dira indarrean lan-poltsa horiek.

4. Epaimahaien ebazpenak Kalifikazio-epaimahaien ebazpenak lotesleak izango dira izendatzeko eskumena duen organoarentzat; hala ere, organo horrek aukera dauka horren berriak egiteko, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko indarreko Legean aurreikusitakoaren arabera.

Hamaikagarrena. — Dokumentuen aurkezpena

Sailkapena argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, 10 egun balioduneko epearen barruan, funtzionario izateko proposaturiko izangaiek hautaketa-prozesuan parte hartzeko deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuko dituzte.

Egin ezean edo eskatutako baldintzetako bat egiaztatuko ez balu, bere eskubidea galduko luke eta zerrendako hurrengoari deituko litzaioke kontratua izateko.

Hamabigarrena. — Izendapena

Aipatutako dokumentazioa aurkezteko epea igarotakoan, proposatutako pertsona izendatuko da. Izendapena interesdunari jakinaraziko zaio eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko da.

Hamahirugarrena. — Azken arauak

Erabaki hau zuzenean aurkatu ahalko da administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean bi hilabeteko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita, kontuan hartuta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatutakoa, administrazio-xedapen orokorra den aldetik. Deialdien eta epaimahaien jarduketaren ondoriozko administrazio-egintzak aurka ditzakete kasuetan interesa duten pertsonak eta betiere Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduan.

Ondarroan, 2020ko urtarrilaren 29an.—Alkatea, Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga



I. ERANSKINA
ESKAERA-ORRIA

ONDARROAKO UDALEAN BRIGADAKO ENKARGATUA
ALDI BATERAKO HAUTATZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

- NAN:
- Lehengo abizena:
- Bigarren abizena:
- Izena:
- Helbidea: kalea, zenbk., solairua:
- Posta Kodea:
- Herria:
- Telefonoa:
- Posta elektronikoa:
- Dibertsitate funtzionala: Bai Ez
- Eskatutako adaptazioa:
- Zein hizkuntzetan egingo dira oposaketa faseko ariketak:

Azpian izenpetzen duenak, eskaera orri honi dagokien frogetan onartua izatea eskatzen du, eta ondorengo agiriak aurkezten ditu (markatu X batekin):

- NANaren fotokopia konpultsatua.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua.
- Gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- Euskarako ziurtagirien edo tituluen fotokopia konpultsatua.
- Alegatutako merezimenduen zerrenda eta horiek egiaztatzeko agirien fotokopia konpultsatuak:
 -
 -
 -

Eskatzaileak, eskaera honetan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela AITORTZEN DU.

Era berean adierazten du Ondarroako Udala BAIMENTZEN DUELA EZ DUELA BAIMENTZEN bere datu pertsonalak oinarrietan jasotako helburuetarako erabiltzeko, abenduaren 5eko 2018/3 Datu Pertsonalak Babesteko Legean jasotakoaren arabera.

Ondarroan, 2020ko(a)(r)en ...(e)(a)n.

(Izenpea)